

Idazlea
Kerstin Sjösvärd,
Proiektuaren
kudeatzailea

ArbetSam

Arbetsplatslärande

Euskararako itzulpena:
Emun S. Coop



ArbetSam materialen aurkezpena



äldrecentrum
FÖRSKNING & UTVECKLING

 **LIDINGÖ STAD**

ArbetSam materialen bertsioa, sarrera

Material hauek (irakaslearen gida, kudeatzailearen gida, EEEF egokitua eta trebakuntza programak hausnarketan oinarritutako eztabaiden gidarientzat eta hizkuntza laguntzaileentzat) azken 10-15 urteetan garatutakoak dira, Suediako Stockholm eskualdeko helduentzako gizarte zaintzari buruzko hainbat ikaskuntza proiektutan oinarrituta. Lan honen abiapuntua eta isla, nahitaez, Suedian helduen gizarte zaintzaren eta hezkuntzaren gaitan daude legeak, araudiak, tradizioak, jarrerak eta egoerak dira. Testuingurua argitzen laguntzeko, labur azalduko ditugu hemen Suediako adinekoen zaintzaren, helduen hezkuntzaren eta etorkinentzako hizkuntza ikaskuntzaren nondik norakoak.

Helduen gizarte zaintza eta helduen hezkuntza Suedian

Suedian 290 tokiko agintaritzak daude eta agintari horiek zergak ezartzeko ahalmena dute. Tokiko agintari horiek arduratzen dira helduei zaintza soziala emateaz, eta gobernu zentralak, berriz, legeak onartu, arauak ezarri, ikuskapenak egin eta funts osagarri batzuk ematen ditu.

Adinekoen zaintza

Suedian, helduen gizarte zaintza “kolektiboki finantzatzen dute zergadunek” eta “beharraren arabera dago eskuragarri, ez ordaintzeko ahalmenaren arabera” (1997/98 Gobernu Legea: 113 s 1). 1998an, Suediako parlamentuak berretsi egin zuen adinekoen zaintzak finantzaketa publikoa izaten jarraituko zuela, gizarte klasearen araberrako geruzatan zati ez zedin. Orain, adinekoen zaintza ia guztiak finantzaketa publikoa jasotzen du.

Zaintza zerbitzuak eskuratzeko, adinekoek eskaera aurkezten diote tokiko agintaritzari ahaideen edo tokiko gobernuko arduradun baten laguntzaz. Eskaerak tokiko gobernuko arduradunek, zaintzako aholkulariek, ebaluatzen dituzte eta haiek erabakitzen dute adineko bakoitzari zer zerbitzu dagokion. Tokiko agintarien erabakiaren aurka apelazioa aurkez daiteke, baldin eta eskatzailea konforme gelditzen ez bada. Zaintza zerbitzuak tokiko agintariak zuzenean kontratatutako zaintza langileek, edota zaintza langile pribatuak edo boluntarioak ematen dituzte, tokiko agintariak antolatuta.

Langileen plangintza eta garapena helduen gizarte zaintzan

Suedian, helduen gizarte zaintzaren sektorean 200.000 langile inguru ari dira lanean. Askotariko profesionalak daude langile horien artean: erizainak, errehabilitaziorako terapeutak eta fisioterapeutak. Langile gehienek, hala ere, funtzio osagarriak dituzte; adibidez, zaintzako langileak eta erizain laguntzaileak (hau da, osasun zaintzarako laguntzaileak).

Rol profesionaletarako, langileek titulu egokiak izan eta etengabeko garapen profesionaletara jaso behar izaten dute. Trebetasun horiek unibertsitateetan eskaintzen diren goi mailako hezkuntzako programen bidez garatu eta mantentzen dira.

Langile laguntzaileentzat, berriz, osasun eta gizarte zaintzako programa nazional bat dago batxilergoan eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoren eta unibertsitatean oinarritutako hezkuntzan ematen da. Sustapen lana egiten da gizarte zaintzako enplegatzaileek titulazioa programa horren bidez eskuratzeko langileak kontrata ditzaten, baina behartu gabe. Kalitatea ziurtatzeko gobernuaren sistemak enplegatzaileei eskatzen die ziurtatu egin behar dutela langile laguntzaileek haien lanak eskatutako gaitasunak badituztela, baina ez da kontrolatzen enplegatzaileek hori betetzen duten edo ez.

Aldaketa demografikoa eta horren isla langileetan

Zaintza langileen eskaera aldakorra da Suedian toki batetik bestera. ArbetSam proiektuko partaide asko duela hamar-hamabost urte kontratatu zituzten, Stockholm inguruan langile falta handia zen garaian. Antzeko presioa espero dugu datozen bi hamarkadatan, 80 urtetik gorako suediarren ehunekoa asko ari baita igotzen; hein batean 1940ko hamarkadan jende asko jaio zelako eta bestean, bizi itxaropena igo egin delako. 2020tik 2030era, 80 urtetik gorakoak orain baino % 45 gehiago izango dira. 2010etik 2050era, adinekoak zaintzeko langileak % 75era arte ugartu beharko dira.

Enplegatzaileek langileak kontratatuzko presioa gero eta handiagoa izateaz gain, zaintzako langileek orain ez dituzten trebetasunak eta maila handiagoko trebetasunak izan beharko dituzte. Gaur egun, Suedian, 1940ko eta 1950eko hamarkadetan jaiotako emakumeak gailentzen dira zaintzako lanbideetan. Gaurko eta biharko emakumeek lan ibilbiderako itxaropen ezberdinak dituzte soldadari, lanpostuaren eraginari eta norberaren garapenari dagokionez. Gainera, haien lan ibilbidean enplegatzaile batekin eta ondoren beste batekin aritzeko aukera gehiago dituzte; baita lanbidea aldatzeko ere. Sektoreak askoz enplegatzaile lehiakorragoa bihurtu beharko du eta lantoki erakargarriagoak, zeregin interesgarriagoak, aurrera egiteko aukerak, ordainsari hobekiak eta lanaldi osoko lanak eskaini beharko ditu. Gizon gehiago ere kontratatu beharko dituzte.

Era berean, sektore honetan gero eta jende gazte gutxiago sartzen da. Zenbait kalkuluren arabera, datozen hamar urteotan, bigarren hezkuntzak 100.000 ikasle baino gehiago galduko ditu; ia laurdena jaitsiko da kopurua. Horri ibilbide profesionalerako itxaropenak handitzen ari direla gehituta, seguru asko, askoz gazte gutxiagok emango du izena osasun eta gizarte zaintzako programan. Sektorera helduen kontratazioak erakartzeko beharra ere izango da; etorkin kopuru handia barne. Egoera hori izanik, helduen hezkuntza profesionala eta suedierako trebakuntza are funtsezkoagoak izango dira adinekoen zaintzan kalitatea eta duintasuna ziurtatzeko.

Ikaskuntza eta garapena helduen gizarte zaintzako lantokian

Langile laguntzaileen trebetasunak hobetzea nahi duten enplegatzaileek tokiko agintaritzak finantzatutako helduen hezkuntzara bidaltzen dituzte batzuetan osasun eta gizarte zaintzako programa nazionalaren ikastaroak egin ditzaten. Ere berean, langileek ere, haien kabuz, egiten dituzte batzuetan ikastaro horiek ibilbide profesionala garatzeko.

Osasun eta gizarte zaintzako programa nazionalako ikastaroak ikaskuntza ematen duenak kontratatutako irakasle gaituek ematen dituzte. Ikasgelan oinarritutako ikastaroak izaten dira eta irakasleek, askotan, ez dute ikasleen lantokiekin harremanik izaten.

Langile laguntzaileentzako lantokiko trebakuntza arauz ezarritako nahitaezko trebakuntzara mugatzen da normalean: suteen inguruko trebakuntza, osasuna eta segurtasuna, mugitzea eta kokatzea eta abar. Trebakuntza hori langile batek edo horretara etorritako kanpoko pertsona batek ematen du.

Zaintzako enplegatzaileek ez dute ohiturarik enpresako trebakuntza kudeatzaileei zeregin horiek jartzeko.

Helduen hezkuntza Suedian

Helduen ikaskuntzarako, ondo errotutako kultura dago Suedian 19. mendetik, auto-antolaketa oinarritua, borondatezko ikaskuntzarako elkarrekin eta ikasketa zirkuluen bidezkoa (asko elizek, neurritasunaren inguruko mugimenduek, alderdi politikoek eta abarrek antolatutakoak dira). Sektore boluntario horrek arreta berezia eskaintzen dio hezkuntza formal mugatua duten helduen gizarteratzeari eta ikaskuntzari.

Borondatezko sektore horri, komunitatean oinarritutako helduen hezkuntzari, "helduentzako hezkuntza ez-formala" esaten zaio. Milioi bat lagunetik gora aritzen dira urtean helduentzako hezkuntza ez-formalean.

Helduentzako hezkuntzako tokiko agintaria

1960ko hamarkadaren amaieran, tokiko agintaritzetan oinarrituta, helduen hezkuntzarako finantzaketa publikodun sistema indarrean jarri zuten. Finantzaketa publikoko sistema horri "helduentzako hezkuntza formala" esaten zaio. Urtean 200.000 lagun inguru aritzen dira hor.

Tokiko agintaritzek finantzatutako zerbitzu "formal" horren helburua helduei derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondorengo mailan titulazio nazionalak eskuratzeko ikasteko aukera ematea da eta tartean dira osasun eta gizarte zaintzako titulazio profesionalak ere. (Batxilergoko titulazio nazionalak dira graduatu izatea eskatzen ez duten lanak lortzeko bide nagusia Suediako gazteen artean.)

Horrez gain, lan merkatuko trebakuntza langabeziari aurre egiteko estatuak erabilitako bidea ere bada; baita Suediako langileei trebakuntza berria emateko eta aldaketa ekonomikoetara egokitzeko eta langile guztien lana babesteko bidea ere.

Tokiko agintaritzen zerbitzua doakoa da jasotzeko baldintzak betetzen dituztenentzat, baina gobernu zentralaren diru laguntzak % 25 jaitsi ondoren 2008tik aurrera murrizketa handiak izan dituztenez, orain leku falta dago. Legez, hezkuntza maila baxuenekoek dute lehentasuna.

Adinekoen zaintzan bezala, tokiko agintariak, legez, helduen hezkuntza mota hori ematea ziurtatzeko betebeharra dute, baina aukera zuzenean eskaintzeko, edota bestela, kanpoko hornitzaileen bidez antolatzeko (boluntarioen sektoreko elkarteak edo enpresa pribatuak izan daitezke).

SFI: Suediera etorkinentzat

Etorkinentzako suediera edo SFI (*Svenskundervisning för invandrare* in Swedish), edozein etorkini (norvegiarrei eta daniarrei izan ezik) suediera ikasteko doan eskaintzen zaion programa nazionala da. Parte hartzeko, tokiko agintaritzan erregistratuta egon behar dute, 16 urtetik gora izan eta oinarrizko suedierarik jakin ez¹. SFIk hasiberrietatik hasi eta EEEF B1 mailara (Hiztun independentea: atariko eta maila ertainaren aurrekoa) arteko ikasleak hartzen ditu. Ikasleek eskubidea dute SFI eskolak jasotzeko SFIren irizpideak betetzen dituzten artean (ikasle batzuen kasuan, hilabete batzuetan, besteek hainbat urtez).

SFI 1965ean ezarri zuten langile etorkinen fluxua oso handia zenez, haiei Suediako gizartean moldatzeko adinako suediera maila eskaintze aldera. Oraindik ere abian diren ikasketa elkarteak sortu ziren programa emateko eta 1986ra aritu ziren, harik eta tokiko agintariei ardura hori eman zieten arte (sistema "ez-formaletik" "formalera" igaro zen). SFI tokiko agintaritzen zerbitzuaren hari mehe bat da, kalitate irizpide nazionalen menpekoa². Batzuetan, tokiko agintaritzak eskaintzen du zuzenean, eta besteetan kanpotik antolatzen da.

SFI ikastea hautazkoa da eta etorkinek ez dute parte hartzeko legezko betebeharririk. Hala ere, etorri berriak diren etorkinei tokiko agintariak parte hartzea eska diezaiekete diru laguntzak jaso ahal izateko. Nahiko ohikoa da ikasleek programa goiz uztea, baldin eta lana aurkitu badute.

¹ Hezkuntza Legea, 22. kapituluak, 13. atala (parte hartzeko eskubidea nork duen) Skollag (2010:800). 2010-06-23

² Förordning (1997:702) om kvalitetsredovisning inom skolväsendet m.m. (eskola sisteman kalitatea ebaluatzeko araudi nazionala)

Hori da SpråkSam eta ArbetSam proiektuetako partaide batzuek SFI programa osorik egin ez izanaren arrazoi bat.

Proiektua itzultzen

ArbetSam proiektuan tokiko zazpi agintaritzak eta zaintzaren bost eskaintzaile pribatuk hartu zuten parte. Proiektuan lan egindako irakasleak tokiko agintaritzaren helduentzako hezkuntza formaletik etorritakoak ziren, baina haien lana Europako Gizarte Funtzaren bidez ordaindu zen. ArbetSam proiektua helduen hezkuntza gehiago sakontzen laguntzeko eta proiektuaren emaitzak ahalik eta gehien besterentzeko modukoak izan zitezela diseinatu zen.

ArbetSam proiektuan garatutako materiala itzuli egin dugu guk ikasitakoa besteei eskura jartze aldera. Jakina, itzultitako materiala beste nonbait erabilgarria izateko, xede den tokiko baldintzetara egokitu behar da. Nabarmendu nahi dugu Europako hizkuntza eskala (EEEF) Suediako eskakizunetarako bakarrik dela aplikagarria. Baina espero dugu deskribatu ditugun prozesuak eta hartu dugun ikuspegiak beste herrialde batzuetan garapena sustatzeko pizgarri izatea.